



SEMETXIA

Etienne Decept

Iturria: *Semetchia*, Etienne Decept. Bulletin de la Société des Sciences Lettres, Arts et d'Études Régionales de Bayonne, 1923, T. XLIV.

Klasikoen Gordailuan:

<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/D/DeceptSemetxia.htm>

Klasikoen Gordailuak egindako lanak oro dominio publikokoak dira, eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

SEMETXIA

Gure denborako gertakari bat, egite batian bildua

HITZKARI ETA KANTARIAK:

MAJALEN: 26 urthe, Elhorreneko andre gaztia.

ERREMUN: 18 urthe, Majalenen anaia, soldado berri bat.

BEÑAT: 50 urthe (semeitxia), soldado zahar bat.

PIARREXUME: 65 urthe, letrazallia.

Gertakaria etxe eder baten ezkaatzian iragaiten da. Gibelian, kanpo-ko athia bi leihoo berinadun handiren artian. Eskoñ eta ezker, geletako eta sukaldekoa athiak. Erdian, mahañ zabal bat untzi loredun eta ahide itxurez estalia. Hor eta hemenka, armario, kutxa eta jartokioak. Ainzinian, josteko tresna (*maxina*).

LEHEN AGER-ALDIA

MAJALEN, tresnari buruz jarririk, hari da mokanes azpiltzen bere gerlako semeitxiarenzat. Kadira baten gañian metatu d^otu gal-tzerdi, barneko, gerriko eta mokanes zenbait; bertze batian xokotol eta xardiñak, soldadoari igortzeko.

MAJALEN: (*lanian eta kantaz*)

Bakian Biziak ez baitzuen naski

Bihotzen hausteko pairamenik aski,



Errege batek —bai eta nola—
Xurgatu dauku gure odola:
Mundu osua zaurtu nahi zuen naski
Ez ginuelakotz pairamenik aski...

Mokanesa metaren gainan ematen duelarik: Aparte:

Eztu xorteak nere zathia
Aphaindu xuriz;
Zuria holatsu, semebitxia,
Nere iduriz...

Berritz hasten da josten, eta kantatzen du aire bera.

Haren zafraldiez bainago hezia,
Dakit zer amaizun daukagun bizia.
Nere hortzetan hirriak eztu
Hitz eztendunik behin xorroxtu.
Ez bainintzen harek osoki hezia,
Erregek borthiztu daut nere bizia.

Zakutua dilindan, Piarrexume sarizen da.

BIGARREN AGER-ALDIA

MAJALEN — PIARREXUME

PIARREXUME: Majalen iduri du zuretzat egiña kantu horrek.

MAJALEN: Orentzat, Piarrexume. Bakotxak badi u bere ziñak eta miñak. Ez duzu uste nere gerlako semeitxi hunek bazituela beriak, munduan nihor gabe zelarik bere laguntzeko eta atxikiteko?

PIARREXUME: Zu bezalako amatxi bat atzeman duenaz geroztik, ez da dohakabe, gizona. Harenzat dituzu oraino puska horiek, segur!

MAJALEN: Bai. Bizkitartian, hemendik aintziñat, anaiak ere beharko ditu.

PIARREXUME: (*guthun (letra) bat zakutotik ateratzen duelarik*) Egia. Erremun ere badoha egun. Orit zu zure semeitxiaren berriak.

MAJALEN: (*irakurtzen duelarik guthuna*) To! Sendatu zauku arras gure semeitxi! Hamabortz egunenat ethortzen omen da...

PIARREXUME: Ho! ho! Majalen, kasu! Mutiko pullit eta gisakoa balin bada.

MAJALEN: (*hirriz*) Senhar bat nahi izan banu, ez nioten gerlako ixtripueri galdetuko.

PIARREXUME: Ez da gauza bera. Hunen alde baduzu jadanik jaidura pitta bat! Bakhar delakotz, beldurgabe delakotz, abantzu azken jauzia egin duelakotz. Aitzaki hoik guziak gozoki mintzo zaizko zu bezalako andere ezti bati, Majalen.

MAJALEN: (*baso bat arno ematen diolarik*) Ori, Piarrexume. Edaazu xorta bat. Ez da hemen senharrik sartuko, ez bada etxeko semia senhartzten. Badakizu, nik beziñ ongi, Elhorreniari zer elhorri ekharri dioen azken senharrak, nere aitak.

PIARREXUME: Badakit, Majalen. Aspalditik ezagutzen ditut etxe huntako elhorriak, bañan bai lore xuri paregabiak ere. Eta ez da nihun errana loriak ez zaizkotela, azkenian, elhorriari nau-situko.

MAJALEN: Jainkoak entzun zaitzala. Edaazu Piarrexume: Arno hori berotuko da.

PIARREXUME: Zure osagarriari, Majalen! (*edaten du*)

MAJALEN: On dagizula.

Sartzen da Erremun soldado jaunzturan.

HIRURGAREN AGER-ALDIA

MAJALEN — PIARREXUME — ERREMUN

ERREMUN: To! Hor zare «la classe»! Berri onak ditugu?

PIARREXUME: (*hirriz*) Bethi berak. Etzaukek gerla akabaturik ez baduzue, soldado kozkorrek, kasla tzar hura xehakutzen.

ERREMUN: Gure ahalak eginen ditugu.

MAJALEN: (*guthuna eskañirik*) Irakur zazu. Nere semeitxia ethortzekoa dugu egun hautarik batez.

ERREMUN: Egun ethorri beharko du, nahi banau ezagutu.

PIARREXUME: Sarri zohazte beraz, azkenik alxatuak?

ERREMUN: Ez, ez. Azkenen aintzinekoak.

MAJALEN: (*ilbundu*) Haurrak ere gerla okhaztagarri hunek iretsiko dauz-kigu.



ERREMUN: (*ezfiki*) Ez dire denak gelditzen ipharreko izaketan. Beha zazu, zure semeitxia ez den ederki atheratu gudu hoitarik!
MAJALEN: (*saminki*) Bai ederki? Begi bat abantzu galdurik, gorphutz guzia sakhaıldurik, sei ilhabele eritegian egoturik!... Laneko ere on othe de gizon ondikozko hori?
ERREMUN: Lagunduko duzu, Majalen, ez naiz hortaz lotsa.

Majalenek begietarat eskua ematen du.

MAJALEN: Erremun, ez dut zu baizik munduan. Anaia baño gihiagoki seme zaitut eta ama baten hersturak orai datxiko nere bihotzari.
ERREMUN: (*mazela ferekatzen diolarik*) Badakit, Majalen. Nere ama gutti ezagutu dut: Zu zaitut egiazko amatto. Etzazula bada zure semia etsiaraz zure nigarrez.

Kantatzen du bere besoetan harturik.

Ez, egiñ nigarrrik, arrena nirea,
 Aski baitzaituzte jan begitarte.
 Nere musuenzat ez luke tokirik
 Eerrekak bazintu bi begietarik...
 Ezinbertze hunek baigaitu itzuli,
 Bihotzak behar du burdiñez estali.
 Zaudez orai arte nik ezagutua:
 Ukhaldi tzarrenek eziñ garhaitua.

Mahaña erakusten diolarik:

Orhoitzapenekeiñ etzare bakharrrik:
 Majalen maitea, ez egiñ nigarrrik.

PIARREXUME:

Orhoitzapenekeiñ etzare bakharrrik:
 Majalen maitea, ez egiñ nigarrrik.

MAJALEN: (*borthiçtua*)

Idortuko ditut nere begi zolak,
 Ez haur maite hunen indarrrik hausteko;
 Bañan zertarako gintuen axolak
 Berritz eta berritz griñetan sartzeko?
 Ama, arrebarik, andrerik badute
 Izigarrikeri hoikien nausiek?
 Ala errabia zaukaten berthute?

PIARREXUME:

Hola deitzen dute
 Ditugun etsaiek.

MAJALEN: (*finki*)

Har bezate beraz merezi dutena,
 Gure itzul dadin gerletan azkena.

HIRUEK:

MAJALEN:

Franzia! Zu! gure erregiña,
 Amadiaz emeki egiña,
 Basa gizon kasta batek zaitu
 Zangopetan nahi porroskatu.

ERREMUN ETA PIARREXUME:

O, Frantzia! Zure haur khartsuak
 Zuri daudez korropillatuak.

MAJALEN:

Ama ona, ez izan beldurrik...
 Zer litake lurra zu galdurik,
 Baitiozu erain, o Frantzia,
 Edertasun guzien hazia...

HIRUEK:

Baitiozu erain etc. ... hazia.

PIARREXUME: Hola mutill. Egizue guk 70an egin dugun baño hobeki — ez gure faltaz hargatik— eta izanen zaizte, mendez mende guziez goretsiak. Ez baihaut ikhusiko, beharbada, nere itzulitik sartzian, bi hitz: Izan hadi bethi eskualdun: Ixill, zuhur eta bihotzdun.

ERREMUN: (*birriç*) Bi pertsu? Millesker, Piarrexume. Oraino elgar ikhusiko dugu. Ez dautet soñetik larrua errexki kenduko, basa gizonek.

Badoba Piarrexume.

LAUGARREN AGER-ALDIA

MAJALEN, ERREMUN

MAJALEN: (*Majalen jartzen da mahañari buruz eta nigar egiten du*)

ERREMUN: Hots, Majalen, hots! Norat egiñ da zure hazkartasuna? Ez dautzute, beraz, trebesiek erakutsi gerthakari gaixtoetarik



alderatzen? Egungoa zer da iragan direneri erkaturik? Nere urruntziak eta gure aita higuingarriaren ihesak, etxia, andre eria eta hirur haur utzirik zure hamahirur urthetako eskuetan, ez dezakete hedoi berdiña utz zure arimari... Halako egun ilhunak gizon baten indarrarekin jasan eta, orai emaztekitu behar zare bada, Majalen? Alxa bihotza, tenoreak galdetzen duen bezain gora edo, bertzenaz, ni jartzen naiz familiaren buruzagi. Etzauzuke eder hemezortzi urthetako etxeko jaun bat, Majalen?

MAJALEN: (*erdi birriz, begiak xukatzen dituetarik*) Haur alegera bat zare, Erremun. Etzaitut gutitu nahi nere ahuleziaz. Atxikazu artha handiz zure arraitasuna.

ERREMUN: (*musu bat ematen diolarik*) Hola Majalen, hola ikhusi behar zaitut; Piarrexumek nahi bezain animutsu izanen naiz, asma badezaket zu soseguan zagozila. (*Ixiltze bat*) Nere puxketerrien antolatzerat noha.

Sartzen da gelan.

BORTZGARREN AGER-ALDIA

MAJALEN

Majalenek hartzen dilu iduriak (edo potretak) bat banazka eta behatzen luzeki; gero kantatzen du:

AMARENARI:

Zuk ama ikhasi duzu,
Bizi labur batian,
Zorigaitza nola dagon
Xutik gure athian.
Ohartzen etziñelarik
Zure xokho ezian,
Bihotza lehertu dautzu
Bi eskuen artian.

BI HAURRIDENERI:

Eta zuek, nere aingeruak,
Herioak goizegi hartuak,
Zuek biak hamabi urthetan
Gan ziñelen... harat!... kasik betan...
Bai aspaldi dakit badutala
Atsekabez ereman ahala

AITARENARI:

Aita! aita! Eziñ barhhatua!...
Zenbat aldiz madarikatua...
Gure phenez zu zare hobendun...
Zu, xoilki, zu! Aita... Bañan egun
Nere herra hasi zait gutitzen.
Itxura hau, zuk utzia hor zen,
Hobenaren lekhuko bezala...
Eta orai, dakit eztudala
Zure hutsen jotzeko eskurik...
Zaude beraz bertzeikiñ lothurik!

*Itxurak bat bertziaren gañan
ibentzen (edo pausatzen) ditu.*

OTHOITZA

Jainko Jauna, harzatzu guziak:
Aita, ama, arreba, anaiak!
—Hobenduri edo hobengabe—
Baitzare zu, Jauna, denen jabe.

*Othoitza hasten duelarik, sartu da soldado adiñeko bat, den bañ
zaharrago iduri du. Begitartia, bizar laur egunetako batez estalia
du (ez luziago) eta oibal xuri batez kopetaren erditik aho xokho-
raño, begi ezkerre tapatzen diolarik oibal beltz batek.*

SEIGARREN AGER-ALDIA

MAJALEN, BEÑAT (soldado zaharra)

BEÑAT: (*boza dardaretan*) Egun on, andria.

MAJALEN: (*barritua*) Ha! zer boza! Nor zare zu?



BEÑAT: (*berabe*) Zure... zure semeitxia, gerlakoa.

MAJALEN: (*batsa harturik*) Ah!... zu zare... Beñat?

BEÑAT: Bai ni... Ustegabetan heltzen naiz?

MAJALEN: (*oraño harrituxia*) Ez! ez! zure guthuna izan dut orai berian, berberian.

BEÑAT: Bai. Hamabortz egunen permissionia ardietsi dut. Barkha datazu nere ausartzia, galdetu badautzut zure aldian ephe labur horren iragaitia... Amatxi... Harrituxia ziñen sartu naizezian.

MAJALEN: Ez. Ez. Zure bozak harri-arazi nau.

BEÑAT: (*erdi hirriz*) Gure bozek orai dirurite bertze mundutik sartzen direla.

MAJALEN: Etzen hori. Ez dezakezu jakiñ nere goguak zer zabillan, eta gañerat, ez ninzen oraño zure ethortziari ohitua.

BEÑAT: (*beroki*) Ez ni ere. Ez nuen amesten hoin laster hurbil nindaitzuela.

MAJALEN: (*berabetua*) Nere anaiari oihu egiñen diot; bozkariotuko da zure ikhustiaz. Hitz dautzut berantetsia zintuela.

BEÑAT: (*eztiki*) Gaxo haurra. Nitaz mintzo ziñeten naski, batzuetan?

MAJALEN: Egun guziz. Nahiko ginuen jakiñ —harek bereziki— zer adiñ, zer begitarte, zer familia zintuen.

BEÑAT: Nituen? Egia diozu... Ditudan, orai, hobeki litake. Zu zaitut amatxi, nere familia guzia, nahi banauzu etxekotzat hartu.

MAJALEN: (*arraiki*) Hartu zaitut, semeitxitzat hartu zaitudanian. Piarrexume, gure letrazalliak, nahiko zintuen urrunago helarazi gure ahidetasunian. (*Hirri hari da aphaur bat*) Mutiko gazte, pollit... Ah! ah! ah! (*oibu egiten du*) Erremun! Erremun! zatoian!

Sartzen da Erremun.

ZAZPIGARREN AGER-ALDIA

MAJALEN, BEÑAT, ERREMUN

MAJALEN: (*alegeraki*) Huna, Erremun, zure koñat gaia, Piarrexumeren nahiaz bederen.

BEÑAT: Etzaitela nitaz trufa, Amatxi; berrogoi eta hamar urthe badituz.

ERREMUN: (*gozoki*) To! To! Beñat zaitugu beraz? Zer ziñen engaiatu adiñ hortan?

BEÑAT: Engaiatu, bai, hauzi handi batian nere hobenen irabazteko.

ERREMUN: (*bortzekua ematen diolarik*) Ala jokua! Llagun, etzaituzte goxoki erabilli.

BEÑAT: (*arraiki*) Edertu naiz. Ikhusi baninduzue hastian... handik lekhorra!

ERREMUN: Bero egiten zuen?

BEÑAT: Askitto. Gu zaharrentzat bereziki, ez baiginuen apendizkorik egiñ ordu arte. Bañan, behar denian bere burua erakutsi ez da ez zahar ez gazterik: Eginbidiak manatzen zaitu.

MAJALEN: Bai, eginbidiak. Biziko okasione guzietan agertzen zauku eginbidia.

BEÑAT: (*bazkarkari*) Badakit. Eta noizpeit ahanzi dutalakotz, aise emanen nuen nere bizia Frantziari, aintzindariak etsaiari buruz itzuli gaituztenian.

MAJALEN: Hañitz erori zarete?

BEÑAT: Lehenbiziko tiroñetik ez da bihirik gelditu. Bigarrenak ukitu ditu doidoia izakak. Azkenian, guria aintzintatu denian, potikoka, errestaka, egon ziren arbola motzorro edo harrasi demendrenen gibelian gerizatuz, alemanen sua iraungituxia zen, eta sartu gare debruak eginikako hildo hetan. Ala fedel gure hillak ongi mendekatuak izatu dire. Zer sarraskia! nere haur maitiak.

MAJALEN: Jesus!...

BEÑAT: Ez da han jostetarik. Eta, gehiagoko dena, hasteko beldur, izialdura harek etzaitu kordokatzen. Beharrietako burrunba batek xoratzen bezala zaitu eta bazoazi, erdi itsutua, erdi mozkortua, gorphutz hill bat xirimolaren erdian iduri.

ERREMUN: Beharrik.

BEÑAT: Gero da, gero itzulia, zoramendu hortarik atheratzian (*hirriz*) Ez bagindu orduan xahakoan datxikagun hori edo gorri hura, ez dakit zenbeitek ihardok zindezoketen inarrosaldiari.

MAJALEN: Sinesten zaitut.

BEÑAT: (*gozoki*) Gogoeta horiek nabilzkalarik, nere sentimenduak ez baitziren naski beren tenorekoak, barratapan! hor erortzen zauzku eltze deritzaten hetarik bia izakaren xokhorik seguerenerat. Geroztik jakin dut, zer lan egin zaukuten. Doze-



na bat gizon suntsitu eta bertze hainbertze kolpatu itsuski, ni hautan. Dakidana da su izigarri baten barnian gertatu naizela eta hartan agertu zauzkidala zuen begitarte maitatuak.

ERREMUN: (*birriz*) Guriak?

BEÑAT: Edo ematen zindazkidatenak.

MAJALEN: (*zorrozki behatzen duelarik*) Iterik bazuten?

BEÑAT: Zuk uste baino handiagoa.

MAJALEN: Erasian hari gare eta ez dautzut galdetzen egarri eta gose zarenez.

BEÑAT: Ez! ez! Bidian ederki jan dut. Galdetuko dautzut bakharrik ur xorta bat, garbitzeko.

MAJALEN: Zure gelaren egiterat noha. Gure ama gaixoa hil geroztik nihork ez du lorik egin gu sortu garen ohian... Nahi baduzu xerlotsu aire hori utzi?...

BEÑAT: Xerlotsua zer da?

MAJALEN: (*birriz*) Iletsua. Frantsesez «Poilu» derizatena.

Beñat eta Erremun birriz hari dire.

MAJALEN: (*barritua*) Zer hirri bitxia duzun?

BEÑAT: Nere boza bezalako, naski...

MAJALEN: Entzun dut: Bertze mundukoa. Beraz, mundu aphaal huntarat zure berritz helarazteko, mahañaren gañian emanen daukitzut gure aita zenaren bizar nabalak.

ERREMUN: Aita zenaren?...

MAJALEN: (*idoriki*) Ez othe da hil balitz bezala guretzat? (*Beñati*) Eta nahi badauztatzu soldado arropa horiek utzi, garbiarazteko eta sarestatzeko, ohiaren gañian kausituko ditutzu erranikako gizon beraren jauntzurak. Zure hiñsukoa zen. Gizenxago beharbada.

BEÑAT: (*birriz*) Bah!... Gerrikoa tinkatuko dut... han bezala batzuetan.

Majalen sartzen da eskoñeko gelan.

ZORTZIGARREN AGER-ALDIA

BEÑAT, ERREMUN

BEÑAT: (*berabeki*) Aita zena! Ezagutzen zaituzten batek erran daut etzina-kitela zuzenki, hil edo bizi den oraño zuen a^ota.

ERREMUN: Ah! ah! Erran dauzkizu ere, ezagun horrek, gure aitaren balentriak?

BEÑAT: Denak erran dauzki. Bortzetarik, bia gelditu zaiztela bakharrik.

ERREMUN: Eta Majalen hamahirur urthetan izan dela aitak eginikako familiaren sustengua.

BEÑAT: Erran daut, gizon berak, sobera gazterik ezkondu zela zuen aita. Hogoï eta hirur urthetan... Haurxko!...

ERREMUN: Aitzaki ederra!

BEÑAT: Zuk ez dezakezu preza aitzaki hori. Ez dut erran nahi zuen aitak urrikalmendurik merezi duela, eta segur naiz denborak erakutsi diola bere hobenaren handitasuna; bañan, ez ahantz nik errana: Ezkontza gaztegiari asko behar eztenik darraizkola.

ERREMUN: (*birriz*) Ez naiz hortan!...

ERREMUN: (*kantatzen du*)

Andere Gerla xoilki dut

Orai emaztegaia.

Erriz-iriñak ez dio

Aingerutzen bisaia.

Xuri orde, gorriz dakhar

Ezteietako zaia...

Lo luze batenzat dagi

Gure ohe nasaia.

BEÑAT:

Umezurtzaren ariman

Goizik dabil negua.

Hartarik ethorri zautzu

Daukazun sosegua.

Balaki eman dautzunak

Zertan duzun gogua,

Iklus luke aintziñetik

Zor zaion gaztigua.

**ERREMUN:** (*nahasixko*)

Orai, hobe dugu gathez libro izan,
 Hurbill dugun batek bi hitzez ez detzan
 Bihotzak zartaraz eta zailak bihur...
 Majalenek eman detzula bi ahur
 Hogoi liberako muthill gazte huni
 Eta utz gu biak, Beñat, zu eta ni,
 Nigarren azpian urtharazi gabe...
 Ez naiz, nere ustez. khexu ez herabe,
 Bañan kalte zauzkit erasi luziak...

(*xutituri*)

Sor beitez gudari hurriki heziak!...

BEÑAT: (*izitua*)

Erremun! Erremun! Etzaitela bero
 Sukharrak ixtant bat baizik ez du: Gero
 Gorplurtza dagoku kasik ahitua.
 Emazu nerekiñ hazkarren kantua!

* * *

ERREMUN:

Gizon hazkarrak.
 Gazte zaharrak,
 Sunsitzen ditu endaren kharrak.

BEÑAT:

Aitorren ume,
 Ez daizte zume
 Axalez egiñ bizkar hezurak...

BIEK:

Buruak gogor,
 Nahiak idor,
 Non hert detzake basen beldurrak!...

ERREMUN:

Onheste hotza,
 Erasi motza,
 Eskuan burdiñ eta izotza.

BEÑAT:

Lagunik aski
 Izanez naski,
 Urruntzen dute jende arrotza...

BIEK:

Segur hortako
 Ziñez dohako
 Hautatuari heien bihotza!

*Majalen sartu da bigarren kopla kantatzeko zutelarik
 eta izitua bezala dago.*

BEDERATZIGARREN AGER-ALDIA

BEÑAT — ERREMUN — MAJALEN

MAJALEN: (*batsik gabe*) Beñat!... Zure... Zure... aldatzekoak hor dituzu.**BEÑAT:** (*bebatzen duelarik*) Millesker.**MAJALEN:** (*barrituxia Majaleni*) Zer debru duzu? Iduri du suge bat aurkitu dela Beñaten arropetan.*Beñat sartzen da eskoñeko gelan.***HAMARGARREN AGER-ALDIA**

ERREMUN — MAJALEN

*Majalen lehenik badoba Beñaten gelaraño, athia ongi hetsia denez
 ikhusteko, eta, hats babi, begiak xoratuak, lasterka hurbiltze da
 Erramunenganat.*

MAJALEN: Erremun!... Erremun!... Ez duzu boz hori ezagutzen?**ERREMUN:** Ez... boz ederra da.**MAJALEN:** Etzare orhoitzen holako boz bera lehen... aspaldi... entzunik?**ERREMUN:** Oh!... Holako bozak nunnahi badire... (*ixiltze bat*)**MAJALEN:** Bai! Ba°! Baditake... Bañan... boz hoikien jabiek ez dituzte holako begiak eta holako hirri bitxiak... ez eta ere, noiztenka, holako jestuak.**ERREMUN:** (*birriz*) Bo! Bo! Horra bada emazteki baten idurikundia!... Noren egite kausitzen diozu, Beñati?



MAJALEN: Egia errateko... nihorena... Bardiñ, ametsetan ikhusi duket.
Hau bezalako... ezagun bat.
ERREMUN: Nik uste, semeitxiaz amets egin eta hau bezalatsuko gizon bat
ikhusi bide duzu... eta orai iduritzen zautzu nunbeit, lehen,
ezagutu duzula. (*ixiltze luze bat*)
MAJALEN: Baditake... hargatik!...

*Mahañeko iduriak bat banazka erhietan derabilzka.
Ixiltze luze bat.*

MAJALEN: Ah!...
ERREMUN: (*birriz*) Zer duzu? Delako suge hura?
MAJALEN: (*iduri bat eskañirik Erremuni*) Erremun! Erremun! Beha zazu.

*Beñat sartzen da, bizarra eginik, trapaak kendurik.
Elborreneko etxeko jaun obiaren arropak jauntziarik.*

MAJALEN, ERREMUN: (*duria eskuan*) Oh!... Aita!... Aita!...

HAMEKAGARREN AGER-ALDIA

MAJALEN, ERREMUN, BEÑAT

*Majalen, izitiritu izigarri bat eginik, erori da,
burzoratua, Erremunen besoetarat...*

BEÑAT: (*lasterka jarraikitzen zaio Majaleni eta bi eskuak bere eskuetan tinkaturik, espantatuki*) Majalen! Majalen! Bai! Ni naiz zure aita... zure aita urrikiak zuenganat erakartzen duena. Majalen! Atzar zaitte. Bazindaki zer pairatu dutan: zer atsekabetarat zuen eskasiak jautsarazi nauen! Bazindaki zorion baten pare erori zaitala arimarat gerla lazarri hunen berria! Majalen! Erremun! Ez dezakezue asma zoin dohakahe egon naizen nere bekhatuaren phartelierrak, nere xendian, nik zuek bezala, harek ere utzi nauenian gazteago bati jarraikitzeke. Xoil! xoil! mundu zabal huntan! Orduan, Majalen, orduan ezagutu dut nere hobenaren khirestasuna.

Majalen! Jainkoatz! egungo zorigaitzek hoin harrigarriki elgarganatu gaituztenian urrikhal zakizkit! Huts handienak behar ditzute gizonak elgarri barkhatu denbora ikharagarri hautan.

*Mintzo delarik, ezitiki, Beñatek edo Elborrenek bartu du
Majalen Erremunen besoetarik eta beretarat bildu.*

MAJALEN: (*atzarrik*) Aita!... Amak hilzerakoan, barkhatu zauzkitzun zure hobenak. Nola, ni, zure odoletik atheratua, ni zure haurra, haur funtsgabeko bat gelditua, nola nindakoke gogor eta berritsu?
BEÑAT: (*Majalen besarkaturik*) Barkhatzen dautazu beraz, Majalen, nere haur maitia? Majalen.

(Ixiltze bat).

ERREMUN: (*arraiki*) Erradazu aita!... Ni ere hemen naiz... gero!...
BEÑAT: (*Erremuni beso eskoña eskañirik*) Bai... Erremun! Biak! Biak bat an zatozte!

(Ixiltze luze bat).

MAJALEN: (*bozkariotua, kantatzen du*)
Nola erhautsa haiziak,
Bere hats batez biziak
Gure oñhaze guziak
Barraiatuko dauzkigu.

BEÑAT: (*Elborrene*)
Orhoitzapen borthitzenak,
Bihotz miñ ahalkorrenak,
Nigar ezin gordeenak,
Baitzazko aski gaztigu.

HIRUEK:
Ethorkizuna dezagun
Billakaraz gure lagun,
Gauden, bihar, nola egun,
Atxiki eta ordongu...

ESTALKIA

Bidarten egina 1917ko jorrallian



MISE AU POINT

Le critique littéraire de *Gure Herria* L. A. reprocha naguère à Semetchia de n'être pas spécifiquement basque, parce que l'action de cette pièce pourrait se dérouler ailleurs que chez nous et que les marraines de guerre furent plus que rares en Eskuarie durant le grand cataclysme.

Sur le premier point je répondrai à mon aimable Aristarque ceci depuis ma naissance, je respire un air authentiquement bas que et depuis 44 ans —une fugue de 8 années à Paris et en Provence exceptée— je parcours dans tous les sens les arrondissements de Bayonne et de Mauléon, d'Esquiule à Hendaye et de Villefranque à Sainte-Engrâce. Il n'est pas une commune de ce territoire que je ne connaisse et j'ai vécu longuement dans beaucoup de ses villages grands et petits, de la vie même du peuple euskarien: au foyer et sur la place publique, au travail et à l'auberge. J'ai conscience d'y avoir contracté ce sentiment de la réalité que des hommes tenus par la qualité de leur profession à rester à l'écart du vulgaire ne peuvent acquérir au même degré.

Eh bien! tout bien echaminé et retenu, j'ose affirmer que les actions et passions de nos compatriotes sont absolument semblables à celle des autres humains et se manifestent de la même façon. Quelques détails de mœurs amoureuses —sans portée dans une synthèse—, un peu différents de ceux qui ont cours autre part, pourraient se relever par ici, mais ces détails ne sont pas de ceux que l'on montre à un public respectable: Je fais allusion certains usages pratiqués au temps de ma jeunesse, dans les nuits du samedi au dimanche. Du reste, il ne pouvait être question de ces usages dans un ouvrage purement familial tel que Semetchia, d'où l'amour lui-même est exclu.

Quant à la question accidentelle des marraines de guerre, Monsieur l'abbé L. A. était mal renseigné. Il m'a été affirmé que Sain-Jean-Pied-de-Port et Cambo eu eurent; je n'ai pu contrôler ce renseignement, mais j'ai personnellement connu, à Guéthary et à Bidart, une bonne demi-douzaine de jeunes filles et de personne plus mûres pourvues de filleuls et j'ose certifier que ces âmes charitables n'avaient aucune arrière-pensée galante en secourant de malheureux soldats sans parent et sans ressources. L'une d'elles même, un modèle de dévouement et de pureté, a prêté son caractère et son prénom de Madeleine à mon héroïne.

Puisque je suis en veine de rectifications, ce n'est point par «iletsu» (mot basque figurant au dictionnaire d'Azkue et au Manuel de Darthayet) que j'ai traduit «Poilu», mais par l'équivalent direct «Cherlotsù» vocable peu connu et digne d'être monté en épingle, ce que je n'ai pas manqué de faire. «Iletsu» est explicatif, simplement.

E.D.